ZORTZIKO.

## Astigarraga

Gaur irten da, ille bi ta erdi gure onduan igarota Almando'tar Norberta eresiari bikaña, Comillas'era, bere ikasketak egiteko. Goikoak berama, berabil eta bekar.

### MIKEL-DEUNA

Egun aundi ori alan ezpa'litz ez igaro da aurten ere. Baña ¿noiz ospatuko ote da Aberri-Zaitzari bati dagokion eraz? ¿Noiz nabaitu ditukegu egun orretan Euzkadi guziko jualiak (kanpayak) Mikel Deuna goresten? Neronek ere, juan dan larunbatian, iruurtzi txiki-txiki bat eski nuen dorrera igon eta jualiak erabiltzeko. Ongi pozik ekingo nion "dindan boleran", egun nabarreko "Agur, Miren" garayan: poz-egun ori urruti da, bañan geroz alderago zeren urte oyetan bezela, aurrera lan ba-dagigu, Iudiyak laster nortzuk garan ezagutuko gaitu. Guzi ori lortziarren Zaitzari ona autetsi zan eta Mikel deunak lan ori bere gain artuko du, Euzkadi azkatzia, Urtzi geyago aintzaltzeko bidia dala dakielako.

### UZTA.

Aurtengo uzta iñoiz ez lakua da. Ogei ta geyagotan ezagutu ez da oraingo au berin onik. Sagarre josiyak bazter guziyak, baitare buruba añako aliakin. Lan bilketa izan dira eta oraindik bat egin dnik ezagun ez. Sagardua, berriz, gizen-gizena eta erantzun orra. Nekazari oyek: arako txindi edo diru-zuri oyek artzera-kuan eta datorren urtian baso sagardo

U E

KADI 6-10-1917

ederrak eskuetan artzen dituzuenean, ez aiztu, arren, Jaun-goikoa'rekin, eta eliz-kizunetara maizago juan.

Arto, baberrun ta osterantzekuak ezin ederraguak. Alako edazkenan sartu gera.

TXADON-ZAYA.

# Información postal